

Hainbat ekitaldi antolatu dira bihar Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna dela gogoratzeko

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Hans Cristian Andersen idazlea jaio zen egunarekin bat eginez, bihar ospatuko da Europako hainbat herrialdetan Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna. IBBY nazioarteko elkarteak testu bat eta ilustrazio bat zabaldu ohi ditu, Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren ospakizunekin bat eginda, eta aurtengo ekitadian Jan Ulicianski eslovakiar idazleak idatzi du testua (Liburuen patua izarretan idatzirik dago, Juan Ramon Azaolak euskarara egindako itzulpenean) eta Peter Cisarik eslovakiar ilustratzaileak ilustrazioa. Izarrak zerua gauez argiztatzen duten liburuak dira, dio Ulicianskik testuko pasarte batean.

Euskal Herrian hainbat ekitaldi antolatu dira, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Esaterako, Galtzagorri elkarteak (OEPLI Haur eta Gazte Liburuaren Espaniako Elkartearekin elkarlanean) Eta ezkontza eta gero zer gertatu zen? nazioarteko lehiaketara deia zabaldu du. Parte-hartzaileek Printzesa eta ilarra ipuinaren jarraipena asmatu behar izan dute.

'Printzesa eta ilarra' ipuinaren jarraipenak

Printzesa eta ilarra ipuinaren jarraipenerako jasotako proposamenekin liburua osatu eta argitaratzeko asmoa du lurretako (Bizkaia) Liburutegiak. Liburutegi horretan Anderseni buruzko erakusketa izan da atzo arte, Haur Liburuaren Nazioarteko Egunarekin bat eginda hori ere.

Euskal Herriko beste hainbat liburutegitan ere ekarriko dute gogora Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna: Ermuan, Alegian, Erandion